

BARRUNDIA

Herri Programa

DESZENTRALIZAZIOA

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

EUSKARA

AUKERAK JARTZEA GAZTEEK ETA NAGUSIEK BARRUNDIAN BIZITZEN JARRAITU AHAL IZAN DEZATEN

BARRUNDIARAKO EREDUA:

Barrundiako herriek herri izaten jarrai dezatela.
Herrien neurrigabeko hazkundera gelditzea.
Barrundian ez dugu "Argomaiz"ik nahi.



INFORMAZIOA:

-**Udal informazioko aldizkari** bat sortzea. Aldizkari hori behar bezala arautu beharko litzateke udalerriko informazioa zabaltzeko tresna objektibo bat izan dadin, eta ez propaganda hutsa.
-Udalerriko web orria sortzea.

PARTE-HARTZEA:

-Udalaren osoko bilkurei buruzko ordutegia eta informazioa zabaltzea eta bilkura horiek ordu egokietan egitea jendea joan ahal izan dadin.
-Udal-batzordeak irekiak eta parte-hartzaileak izatea.
-**Herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantzak** egitea.

HIRIGINTZA:

-Arau Subsidiarioak aldatzeko aukera aztertzea. Horren inguruan, hauxe proposatzen dugu:
1-Barrundiako herrien hazkundera neurrigabea gelditzea. Lurzoruaren espekulazioa eragozteko.
2-"**Lurraldearen harrera-ahalmena**" aintzat hartzea (lurraldearen okupazioa, ur-erabilgarritasuna, ur zikinak saneatzeko ahalmena eta era guztietako zerbitzu eta beharrak).
3-Arau Subsidiarioak aldatzeko orduan, kontzejuak kontuan hartzea.

-Hirigintza-arauak aplikatzeko orduan, arbitrariotasuna deuseztatzea eta neutraltasuna bermatzea, korporazio-kideen baitan utzi gabe.

-**Jasangarritasunaren** alde egitea eraikuntzan:

Eguzki-plakak eta plaka termikoak jartzea (alderdi estetikoak ere kontuan hartuta); instalatutako elektrizitate-potentzia egokitzea; ingurumena zaintzen duten materialak erabiltzea; euri-urak jaso eta aprobetxatzea.

Etxebizitzen orientazioa eta fatxadetako baoak kontuan hartzea, material isolatzaileak erabiltzea etab.

-Administrazio-batzordeekin batera, uraren kontsumoa arautzeko jarduerak bultzatzea: aurrezteak, ondo erabiltzea, ureztapena, igerilekuak.

-Lehen sektorea:

1- Erraztasunak eta aukerak eskaintzea nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean jardun nahi dutenentzat.

2- Sektoreko jarduera-lizentziak ematea eta arautzea. Lizentzia horiek ematearen eta mantentzearen alde egitea.

ETXEBIZITZA:

-Lehenengo eta behin, bertan bizi nahi dutenen etxebizitza-eskaria zein den jakin behar da, hori baita premiazkoena. Eskaririk badago, gaiari heltzea "ezinezkoa" den ustea alde batera utzita.

-Lehentasuna ematen diogu **dagoeneko eraikita dauden etxebizitzak erabiltzeari:**

Eraikin zaharrak birgaitzeko eta erabiltzen ez diren etxebizitzak errehabilitatzeko laguntzak ematea ohiko etxebizitza gisa erabiltzeko. Erraztasunak ematea etxebizitzak zatitzeko. Alokairu soziala sustatzea birgaitutako etxebizitza zaharrak erabilita.

-Lurrekin eta udal-etxebizitzekin ondare bat sortzea Udalarari dagokion "hirigintza-aprobetxamendua" baliatuz.

-Hutsik geldituko diren udal-etxebizitza biak alokairu sozialerako erabiltzea, saldu edo espekulatu gabe.

KULTURA ETA KIROLAK :

-Laguntzak Barrundiako kirol-taldeentzat.

-Kultur toki publikoak sustatu eta horien erabilera bultzatzea.

-Jarduera gehiago egitea.

-Udalerriko jaiari beste izaera bat ematea, herrikoiagoa, parte-hartzaileagoa eta deszentralizatuagoa izan dadin.

GAI SOZIALAK :

-Sexuen arteko berdintasuna bultzatzea.

-Elbarrituentzako laguntzen informazioa ematea eta laguntza teknikoak eskaintzea.

-**Enplegua:**

1- Bertakoentzako enplegua sustatzea.

2- Aukera irekitzea enpresaren batzuk jartzeko eta autoenplegurako: lehen sektorearen osagarri diren jarduerak, tailerrak, errementaria...

3- Lehen sektorearen alde egitea eta izan ditzakeen osagarriak bultzatzea (landa-turismoa eta ostalaritza).

4- Zuzeneko salmenta eta herri-merkatua indartzea.

EUSKARA:

-Hizkuntza-eskubideak bermatuko dituen ordenantza bat egitea euskararen erabilera arautzeko.

-Udal-langileak euskalduntzea.

-Hizkuntza normalkuntzako teknikaria berriz hartzea.

-Herritarren euskalduntzea bultzatzea.

HEZKUNTZA:

- Euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpainak egitea.
- Hurtzaindegi bat jartzeko aukera aztertzea.

GAZTERIA:

- Gazteei elkartzeko aukerak ematea.
- Gazteentzako jarduerak sortu eta bultzatzea.

GARRAIO PUBLIKOA:

- Gaur egun dagoena indartzea.
- Agurainera joateko garraioa jartzeko aukera aztertzea eta udalerriko herrien arteko garraioa hobetzea.

KONTZEJUEKIKO HARREMANA:

- Beren iritzia emateaz gain, erabakimena izan behar dute eragiten dieten gaietan. Sistema parte-hartzailea ezarri behar da administrazio-batzordeekin batera, eta informazioa eman.
- Finantziazio gehiago eman behar zaie, adibidez, eurek kobra dezatela *aprobetxamendu bereziagatiko edo lurzoru, hegal edo lurpe publikoen erabilera pribatiboagatiko tasa* (Iberdrolak, Telefónicak edo gas-hornitzaileek fakturatzen dutenaren % 1'5, gaur egun Udalak kobratzen duena, nahiz eta lurzoria kontzejuena izan).

INGURUMENA:

- Zentral eolikoa: azterketa ekonomikoa egin ondoren, ordaintzen diguten kanona hobetzeko eskatzea, duen errentagarritasunaren arabera.
- Hondakinak eta birziklatzea:
 - 1-Hondakin organikoen konpostajea bultzatzea eta, lehenbailehen, organikoak jasotzeko edukiontziak jartzea.
 - 2- Kontzientziaztea eta informatzea, bereziki, hondakinak **murritzeko** eta ontziak eta materialak **berrerabiltzeko**.
 - 3- Era guztietako hondakinak behar bezala kudea daitezela: olioak, siloratzeko plastikoak, fitosanitarioak eta desinfektatzaileak, obra-hondakinak etab.
- Paisaia eta ingurunea zaintzearen alde egitea. Bertako zuhaitzak kontserbatu eta zaintzea.
- Nekazaritza eta baratzezaintza ekologikoa ere sustatzea.
- Nekazaritzako luraren eta horren kudeaketa egokiaren alde egitea.
- Transgenikorik gabeko udalerria defendatzea, informazioa emanez.

BESTE GAI BATZUK:

- Gizartearen intereseko gaien aurrean posizionatzea: AHTren aurka, maniobra militarren aurka, bake-prozesuaren alde, presoak aberriratzearen alde, etab. Gure udala ez da *"gestoria bat"* eta bere iritzia agertu behar du gai hauetan eta beste batzuetan.
- Udalbiltzan parte hartzea eta bultzatzea. Jai-egutegi propioa ezartzea eta Euskal Herriko sinboloak erabiltzea.
- Soldatei eta dietei** dagokienez, ez dugu politika profesionalaren aldeko apustua egiten, inplikazioaren eta militantziaren aldekoa baizik.

BARRUNDIA

Herri Programa

DESCENTRALIZACIÓN

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

EUSKARA

TANTO PARA JÓVENES COMO PARA MAYORES, HACER QUE SEA POSIBLE SEGUIR VIVIENDO EN BARRUNDIA

MODELO DE BARRUNDIA:

Que los pueblos de Barrundia no dejen de ser pueblos.
Freno al crecimiento desmesurado de los pueblos.
No queremos ningún "Argómaniz" en Barrundia.



INFORMACIÓN:

- Creación de un **boletín de información municipal**, regulándolo para que no sea propaganda, sino difusión e información objetiva del municipio.
- Crear una página web municipal.

PARTICIPACIÓN:

- Información sobre los plenos municipales, y horarios de plenos que posibiliten la asistencia.
- Hacer públicas y participativas las comisiones municipales.
- Creación y desarrollo de **ordenanzas sobre participación ciudadana**.

URBANISMO:

- Plantear la posibilidad de cambiar las Normas Subsidiarias, considerando lo siguiente:
 - 1-Freno al crecimiento desmesurado de los pueblos de Barrundia. No a favorecer la especulación del suelo.
 - 2-Tener en cuenta la llamada "**capacidad de acogida del territorio**" (en cuanto a ocupación del territorio, disponibilidad de agua, capacidad de saneamiento de aguas fecales y todo tipo de servicios o necesidades).
 - 3-Al modificar las Normas Subsidiarias, tener en cuenta a los Concejos.
- Anular la arbitrariedad en la aplicación de las normativas urbanísticas, siendo neutrales en su aplicación y sin que influyan los corporativos.

-Apostar por la **sostenibilidad** en las construcciones:

Instalación de placas solares y térmicas (considerando también valores estéticos); adecuación de la potencia de electricidad instalada; utilización de materiales que respeten el medio ambiente; recuperación y aprovechamiento de las aguas pluviales.

También respecto a la orientación de las viviendas, los vanos en las fachadas, los materiales aislantes, etc.

-Impulsar, conjuntamente con las Juntas Administrativas, acciones para regular el consumo de agua: ahorro, buen uso, riegos, piscinas.

-Sector primario:

1- Favorecer y dar opciones al que se quiera instalar en el sector agro-ganadero.

2- Adjudicar y regular las licencias de actividad en el sector, apostando tanto por su concesión como por su posterior mantenimiento.

VIVIENDA:

-Lo primero, y urgente, es conocer la demanda de vivienda para los que quieran quedarse a vivir aquí. Si hay demanda, afrontar el tema sin pensar que es "inviabile".

-Apostar en primer lugar por **aprovechar las viviendas ya construidas:**

Ayudas tanto a la rehabilitación de los edificios viejos como a la recuperación de viviendas en desuso para su utilización como vivienda habitual. Facilitar la subdivisión de las viviendas. Promover el alquiler social con viviendas viejas rehabilitadas.

-Creación de un patrimonio de suelo y de viviendas municipales, utilizando el "aprovechamiento urbanístico" que corresponde al Ayuntamiento.

-Las dos casas de propiedad municipal que van a quedar vacías, no venderlas ni especular con ellas, sino emplearlas para alquiler social.

CULTURA Y DEPORTES:

-Ayudas a los equipos de deporte de Barrundia.

-Apoyo a la existencia y al uso de locales culturales públicos.

-Promoción de más actividades

-Dar un giro a la Fiesta del Municipio, haciéndola más popular, participativa y descentralizada.

TEMAS SOCIALES:

-Promover la igualdad de sexos.

-Dar información sobre las ayudas existentes y facilitar ayudas técnicas a minusválías.

-**Empleo:**

1- Apoyo a la creación de empleo para la población local.

2- Dar opción a la existencia de alguna empresa y de autoempleo: actividades complementarias del sector primario, talleres, herrero, etc.

3- Favorecer al sector primario y a los complementos que pueda tener (turismo rural y hostelería).

4- Impulsar la venta directa y el mercado local.

EUSKARA:

-Creación de una ordenanza de uso del euskara **que garantice los derechos lingüísticos.**

-Euskaldunización de las trabajadoras municipales.

-Recuperar la plaza de técnica de normalización lingüística.

-Potenciar la euskaldunización de la población.

EDUCACIÓN:

- Campañas para escolarización en el modelo D.
- Estudio de la posibilidad de implantar una Guardería.

JUVENTUD:

- Potenciar el asociacionismo juvenil.
- Fomentar y crear actividades para jóvenes.

TRANSPORTE PÚBLICO:

- Potenciación del existente actualmente.
- Estudiar la implantación de transporte a Agurain y de mejorar el transporte entre los pueblos del municipio.

RELACIÓN CON LOS CONCEJOS:

- Que sean oídos, pero que también tengan capacidad decisoria en temas que les afectan. Implantar un sistema participativo con las Juntas Administrativas y darles información.
- Darles más financiación haciendo, por ejemplo, que sean ellos los que cobren la *tasa por el aprovechamiento especial o uso privativo del suelo, vuelo o subsuelo público*. (El 1'5% de lo que facturan Iberdrola, Telefónica o las suministradoras de gas y que cobra el Ayuntamiento, aunque el suelo es propiedad de los Concejos).

MEDIO AMBIENTE:

- Central eólica: Previo estudio económico, solicitar que el canon que nos dan se mejore y se corresponda con la rentabilidad que proporciona.
- Residuos y reciclaje:
 - 1-Promoción del compostaje de residuos orgánicos, junto con la implantación, cuanto antes, del contenedor para recogida de *orgánicos*.
 - 2-Concienciar e informar, especialmente en **reducir** residuos y en **reutilizar** envases y materiales.
 - 3-Hacer que se gestionen correctamente todo tipo de residuos, tales como: aceites, plásticos de ensilar, fitosanitarios y desinfectantes, escombros, etc.
- Apostar por la conservación del paisaje y del entorno natural. Conservar y proteger el arbolado autóctono.
- Promover también la agricultura y horticultura ecológica.
- Defensa de la tierra agrícola, así como una gestión adecuada de ésta.
- Defender un municipio libre de transgénicos, aportando información.

OTROS TEMAS:

- Posicionamiento en temas de interés social: contra el TAV, contra las maniobras militares, a favor del proceso de paz y de la repatriación de los presos, etc. Nuestro Ayuntamiento no es una "gestoría" y en estos y otros temas sí se debe posicionar.
- Participación e impulso de Udalbiltza. Calendario festivo propio y utilización de los símbolos del país.
- En cuanto a **sueldos y dietas**: no apostamos por la política profesional sino por la implicación y la militancia.